


# Aretxagazeta


Aretxabaleta ● 2001eko otsailaren 23a ● 208. zka.



## Coprecik, 40 urteko historia

Iturririk iturri: Jose Mari Armentia • Iritzia: Arantxa Jaka • Kirolak: Asier Atxa





**Zatoz ikustera!**



**Zainduz**  
OSASUN ETA FITNESS ZENTRUA  
CENTRO DE SALUD Y FITNESS

**Otsailaren 24an  
arratsaldeko 7retan  
inaugurazioa**

**Hargi Plaza, 6  
Aretxabaleta  
Tel. 658 75 80 12**



# Aretz

Taberna

**Gosariak  
Pintxoak  
Plater konbinatuak  
Otaratekoak  
Pizzak  
Hanburgesak  
Sandwichak...**

**ORDUTEGIA:**  
Astelehenetik ostiralera 5:15etatik zabalik  
Astebukaeretan 11:00etatik aurrera

Markole, 5 behea Tel.: 943 79 20 14 ARETXABALETA



Ondo pasatu aratusteetan





## Aratustiek gustetan jatzu? Mozorrotuko zara aurten? Zela?



**Aintzane Iñurrategi**

Bai, gustetan jat.  
Urtero jantzi izen naz.  
Zela mozorrotuko nazen  
ez noie esatera, sekretue  
da eta.



**Nakai Cadabiz**

Bai, asko gustetan jat. Hala  
ta be, azkenengo urtietan  
ez naz jantzi izen.  
Egoten dan giruagatik  
gustetan jat aratustiek.



**Markeliñe Mendieta**

Bai, asko.  
Aurten ez naz mozorrotu-  
ko. Lehen beti mozorrotu-  
tzen nitzen, baina oin ez.  
Domeka batez be, oso  
egun haundixe izeten da  
hemen.



**Igor Dublan**

Lehen eskolan nebilenien  
beti mozorrotzen nitzen.  
Azkenengo urtietan, bar-  
rez, ez naz mozorrotu  
izen. Seguruenik, gainera,  
aurten Iruñara fango naz  
aratuste domekan.

### ESKUTITZAK



#### GUTUNAK GOIENKARIAN

Herritarren gutunak  
Goienkarian agertuko  
dira aurrerantzean.  
Eskutitzen saila desager-  
tu egingo da Aretxagaze-  
tatik, eta Goienkarian,  
"Gutunak" izeneko saile-  
an argitaratuko dira.  
Kontuan izan, gutunak  
makinzako 15 lerro baino  
luzeagoak izatea ez dela  
komeni, aldizkarian aha-  
lik eta iritzi gehienek  
lekua izan dezaten. Izena,  
telefonoa, helbidea eta  
Nortasun Agiriaren zen-  
bakia agertu beharko  
dira. Laburtu behar iza-  
nez gero, Goienkariak  
horretarako eskubideak  
izango lituzke.  
Eskutitzak Aretxagazetan  
bertan edo eta  
Goienkarian jaso daitez-  
ke. Aretxagazetara zuden-  
duz gero, Durana, 11ko  
egoitzara edo eta 151

postakutxatilara bidali  
beharko dira. Zure iritzia  
Goienkarira zuzenean  
bidali gura izanez gero,  
bestalde, honako aukerak  
daude: Postaz:

Barrenkalea, 33 20570

BERGARA.

Tel.: 943 76 92 72

Fax: 943 76 29 77

Posta-e:

iritzia@goiena.com

ARETXAGAZETAKO  
BATZORDEA

## Aretxagazeta

208. zenbakia  
2001eko otsailaren 23an.

Durana 11, 151 postakutxatila  
ARETXABALETA  
Tel: 943 79 86 21  
Faxa: 943 77 18 54  
Posta-e: aretxagazeta@euskalnet.net

Argitaratzailea: Aretxabaletako  
komunikabideak-Loramendi elkarte.

**Lehendakaria:** Edorta Mendieta.

**Erredakzio-konseilua:**

Begoña Arenaza, Arrate Arkauz,  
Aintzane Lasa, Pello Zubizarreta, Arantza  
Antxia, Mireia Uribetxebarria, Goretti  
Ayastuy, Ibon Agirre.

**Erredakzio arduraduna eta publizitate  
arduraduna:**

Amagoia Lasagabaster eta Iratxe Bengoa.

**Kolaboratzaileak:**

Mikel Arroia, M. J. Aretxaga, Joseba  
Lopez de Armentia, Inma Miguel, Aitor  
Antxia, Felis Beltran de Heredia, Rosa Del  
Aguila, Murruxio mendi elkarte, Zاراia  
mendi taldea, Loramendi E. E., Udala.

**Banatzaileak:**

Aitor Urrutia, Iratxe Arbulo, Leire Otaegi.

**Inprimategia:**

Eguzkigraf, Koop. Elk.

**Tirada:** 1.500 ale.

Aretxagazeta paper ekologikoan egiten da.

**Lege gordailua:** SS378 / 94.

ISSN: 1134-2609.

Aretxagazeta aldizkaria ez da kargu egi-  
ten aldizkarian adierazitako esanekin eta  
iritziekin.

Azaleko argazkia: Argazki artxibo taldea  
Erakunde hauen laguntzaz



Aretxabaletako Udala



Gipuzkoako Foru  
Aldundia



Eusko Jaurlaritzako  
Kultura saila



## Barrualdeko lanak egiteko laster itxiko da eliza


Otsailaren amaierarako espero da parrokia kanpoaldeko lanak amaituta izatea. Teilatuko oholeria eta teila guztiak aldatu ondoren, azken egunotan, aterpea konpontzen aritu dira. Behin hori egindakoa, hiru hilabetez itxiko dute Eliza. Ordurako baina, meza emateko beste leku bat topatu beharko dute. Eguneroko mezak, monjen komentuan

emango dira. Hileta eta gaintzeko elizkizunetarako barrez, oraindik ez dute leku aproposik bilatu. Udalak, Kurtzebarri eskolako gimnasioan edo aretoan, Iturrigorri frontoian edo herriko plazan ematea proposatu du. Elizako elkarteak, barrez, Zاراia zineman gura luke meza eman. Kontuak-kontu, hil honetan aurkitu beharko da irtenbidea.


■ **ELIZAKO ERLOJUAN KALTEAK** Joan den zapa-tuan ezezagun batzuek elizako aldamioetara igo eta elizako erloju batean kalteak eragin zituzten. Horren ondorioz, parrokiako aurrealdean dagoen erlojuak, ordubeteko atzerapenarekin ematen zuen ordua. Erlojua 1860. urtekoa da, eta bere konponketa ez da erraza izan. Hala ere, otsailaren 20an, lan haundia egin ostean, lortu zuen Nikasio Alvaro arrasatearrak erlojua konpontzea. Parrokiako arduradunek, bestalde, guztionak diren ondare eta materialak zaintzeko eta errespetatzeko eskaera egin dute.

### ■ LANKIDE BARRIA

**LORAMENDIN** Olatz Olosa Bergararra dugu Loramendi euskara elkarteko langile barria. Olatzek, 23 urte ditu eta Soziologia ikasketak egin ditu Euskal Herriko unibertsitate publikoan. Orain arte, gainera, Bergarako udaletxean aritu da bekadun bezala lanean. Han besteak beste, azterketa soziolinguistikoa egiten ibili da. Olatzek, Leire Okaranzak utzitako hutsunea beteko du Loramendin. Eta oraindik ere, gure herria ondo ezagutzen ez duen arren, gogo handiz ekin dio bere lanari. Beraz, danon partez, ongi etorri Olatz, Atxalbaltara.



Aterpeko lanak bukatu ondoren hiru hilabetez itxiko da eliza



**Angelines**  
AUTOZERBITZUA

Frutan eta  
txarkuterian  
espezialitatea

Mitarte, 16 • 943 79 61 42

INDUSTRIA HORNIKUNTZAK

**RKU**

**URKULU, S.L.**

Mitarte, 23  
Tel.: 943 79 96 66  
Fax: 943 77 10 33

**ARQUERO**  
**CONSTRULAN S.L.**

**ERAIKUNTZA ETA INDUSKETAK**

Tel.: 943 79 01 5  
Basabe Poligonoa, 4 EQ-11 • ARETXABALETA

Zuzendaria:  
Lyonel  
Arquero  
Dekorazioa:  
Soraya  
Arquero

**GARBITU S. KOOP**

**Garbiketa  
orokorrak**

Errekabarren 3- Behea  
Tel: 943 79 01 28

**ITURGINTZA**

**J.J**  
Jose Jabier Inure

**URA, GASA ETA KALEFAZIOA**

943 79 07 34 - 943 79 31 87

**OSKAR  
GARAJEA**

Tel.: 943 79 98 74  
Fax: 943 71 24 59  
Basabe Poligonoa, A-2-4

**M**

**MEMESA**

**Industri hornidurak**

Tel.: 943 71 24 11 / Fax: 943 71 21 19  
ARETXABALETA



## ■ KINTOEK AURTEN ERE EZ DUTE ZINTZO JOKATU

Otsailaren 11an gertatu zen ezbeharra. Aurten Santa Ageda mutil diren taldeko batzuk, itxaflero bat bota eta neska gazte baten ondoan egin zuen eztanda. Ondorioz, neska eskualdeko ospitalera eramane behar izan zuten entzumen arazoak zituelako. Orain Aretxagazetak jakin duenez ezbeharra izan zuen neska ondo dago, baina sendagaiak hartu behar izan ditu. Gainera haren gurasoek kezu formula jarri dute udaletxean. Bestalde, igandean bertan, ertzaintzak hainbat kinto identifikatu zituen herri erdialdeko garaje batzutan etxafleroak bota eta kalte materialak eragin zituztelako. Urtero antzerako arazoak izaten dira Santa Ageda mutilekin, itxafleroak erosi eta inongo kontu barik ibiltzen dira bota eta bota. Udalak barrez, ez die itxaflero horiek erosteko dirurik ematen eta ez daki zein neurri hartu. Hala ere, ziur daude, talde guztitik bakar batzuk ibiltzen direla horrelakoak egiten, beraz, gainontzekoei horiek geldiarazteko deia egin nahi die. Izan ere, jokaera hoiek dira ohitura polit hau desageratzeko zorian jartzen dute-

## Elkarrik gizartearen inplikazioa eskatzen du Bake konferentzian



Lagun ugari joan zen Juanjo Perezek eman zuen hitzaldira

Elkarrik Bake konferentzia aurkeztu zuen herrian joan den otsailaren 13an. Elkarriko kidea den Juanjo Perez atxalbaltarra izan zen hizlaria. Juanjok Euskal Herrian bizi dugun egoera latza azpimarratu, eta hortik irtetzeko irtenbidea gizartearen bertan zegoela adierazi zuen. Egoera horren aurrean Elkarrik zeozer egitea beharrezkoa dela ikusi du, eta Bake konferentzia martxan jarri du. Bake konferentziak elkarriketaren bidez inkomunikazio egoera hau askatu, gizarteari ilusioa eman eta Euskal Herritik kanpoko laguntza lortzea ditu helburuak.

### 3000 laguntzaile

Elkarrik ahalik eta jendegehiena bildu gura du proze-

suaren inguruan, izan ere, argi dauka, gizarte bera inplikatu behar dela egoera honi irtenbidea bilatzeko. Horretarako, Aste Santutik aurrera sinadurak biltzen saiatuko diren 3000 laguntzaile batu gura dira. Era berean, moderatzaile talde bat sortuko da, eta hauek alderdi politikoekin lanean jardungo dute. Prozesuaren metodologia zein izango den ez zuen argitu Juanjok. Izan ere, proiektu irekia izango da, eta alderdi politikoekin egon ahala prozedurak gorputza hartuko du. Esan beharra dago, alderdi politiko batzuek dagoeneko azaldu dutela euren iritzia, eta PP eta PSOEek ezezkoa eman diote Elkarriren iniziatibari.

## ■ ANTZERKI ASTEA

**KURTZEBARRIN** Aste honetan Kurtzebarri eskolakoek antzerki astea ospatu dute. Orainarte, lehen eta bigarren hezkuntzako ikasleak antzerki eta txontxongilo taillerak lantzen ibili dira. Aste honetan, barrez, ikasitako guztia praktikan jarri dute taulagainean. Eskola orduetan gainontzeko ikasleentzat egin dute antzerkia. Arratsaldean, barrez, hauen gurasoak izan dira publikoan.

## ■ MUNDUKIDEREN TRUKE PROGRAMA

Mundukide fundazioak aurten ere, lankidetzan oinarrituriko hartu-emanak bultzatzeko asmoarekin, Komunitate garapenerako truke programa jarri du abian. Horretarako datorren hilabetean hainbat ekintza egingo dituzte. Aurtengoan, herrialde desberdinetako 13 lagunek hartuko dute parte. Iaz bezala, inguruko kooperatibak, unibertsitatea eta eskolak ezagutzen eta bide batez baliagarri izango zaien informazioa batzen ibiliko dira. Mundukide, harreman horietan sortu daitezkeen proiektu posibleak bultzatu eta etorkizunerako truke bideak topatzen saiatuko da.

sukaldeko altzarien eta horma armairuen fabrika

Super  
**Armeko**

- Lantegiko prezioak
- Erakusleku handia: 2 solairu
- Kalitatea eta diseinua
- Nobedade denak

Kataide poligonoa, 6. pabilioia.  
ARRASATE Tel.: 943 71 25 08

**Dorleta  
taberna**

Bezeroen zerbitzura

Loramendi, 8  
☎ 943 79 94 15





■ **BAINETXEKO LANAK AURRERA DOAZ** Industrialde barrian, bigarren aldiko hiriztatze lanak aurrera doaz dagoeneko. Koldo Azkoitia, industrialdeko arduradunaren esanetan, bi hilabete barru bukatuko dira hiriztatzeko falta diren gune guztiak. Bestalde, erai-kinei dagokienez, LASAK 9.300 metro karratuko erai-kina egiten dihardu. Horren atzekaldean, barrez, 5.700 metro karratuko azalera duen beste eraikin bat egingo da. Proiektua dagoeneko egina dago eta laster batean erabakiko da zein lantegik hartuko duen eraikina egiteko ardura. Industrialde guztia 2001. urte amaieran bukatua egotea espero da.



Iaz zirkoa etorri zen herrira aurtengoan zer etorriko ote da?

## Dena gertu domekan aratuste eguna ospatzeko

Dena prest dago domeka honetan aratuste eguna ospatzeko. Aurtengo egitaraua iazkoaren antzekoa da. Hala ere, gauza jakina da egun horretan benetako festa giroa jendeak eta horien moztaroen jartzen dutela. Txino dantza, txaranga eta kuadrila desberdinen desfileak izango dira protagonistak goizean. Arratsaldean barrez, bakoitzak

bere moztaroen aldean duela Euskal Presoak Euskal Herriaratzeko plataformak antolatutako kalejira parte hartzeko aukera izango da. Martizenean bestalde, aratusteei amaiera emateko, txinoaren hileta izango da. Horretarako aurten ere, afari herrikoia egingo da. Joan nahi izanez gero, txartelak Arlutzen eta Taberna Berrin daude salgai.

■ **GARAJE EZ DIREN LOKALEN TXOSTENA** Udaletxeak autoa gordetzeko garaje bezala erabiltzen diren lokalen txostena egin du. Izan ere, baju hauek, autoak gordetzeko erabili arren lokal komertzial bezala daude erregistratuak udaletxean. Hori dela-eta, jabeak, autoa bertan gordezake baina, hara heltzeko espaloi mailan ezin du inongo arrapalik jarri. Eta jartzekotan, beti ere, momentuan jarri eta ken daitetzkeenak izan beharko lirarteke. Herrian, barrez, jende ugari jarri ditu arrapala finkoak eta udalak horien txostena egin du.



ALDI BATERAKO KONTRATUA  
(6 hilabeterako)

## GIZARTE LAGUNTZAILEA

### BALDINTZAK:

- Gizarte laguntzaile titulua
- EGA

### OINARRIAK:

Oinarriak udaletxean jaso ahal izango dira.

### INSTANTZIAK AURKEZTEKO EPEA:

Iragarkia argitaratu eta 10 eguneko epean udaletxean aurkeztu beharko dira.



Aretxabaletako Udala

## “ A R I N S A ”

### Aretxabaletako industrialdea S.A.

Basabe poligonoa “EO-10”  
Tel.: 943 79 62 80/Fax: 943 79 76 19

## ARETXABALETA ITURGINTZA

Durana, 16-Tel.: 79 17 53  
ARETXABALETA

## Maritxu drogeria mertzeria

Araba Ibilbidea, 24  
Tel.: 943 79 23 53



## HAMABOSTEAN BEHIN



## ■ BERTSO AFARIA

Urbaltz elkarte txiki geratu zen, presoen aldeko bertso afarira batu ziren 51 lagunendako. **Unai Iturriaga eta Arkaitz Estiballezek** adarra majo jo zieten bertan batutakoei. Sukaldarien lana txalotzekoa izan zen, afari ederra gertatu zuten. Berakatz sopa lehenengo, bigarreneko oilarra, baserriko oilasko eta idioilarra, eta azkenik, ijito besoa. **Anita Aretxaga, Zuriñe Larrinaga, Maribel Etxebarria eta Julito Revuelta** izan ziren sukaldean fin-fin ibili zirenak.

## ■ PRESOEN ALDEKO ENKARTELADA MUGIKORRA

Otsailaren 13an Kepa Urraren urtebetetzea zela kontuan izanda, enkartelada mugikorra egin zen. Durana eta Mitarte kaleak zeharkatu zituzten partehartzaileek.




## ■ LEANDRO ZALOÑAK AZKEN AGURRA

Argazkian duzuen **Leandro Zaloña** abarea hil zen joan den otsailaren 15ean. Galartzako Zaloña baserrian jaio zen orain 86 urte. Azken 18 urteak Urkiolako santutegian egin zituen abare moduan, baina aurretik Ecuadorren 36 urtez egon zen. Leandro "Los Rios" misioko fundatzaileetako bat izan genuen.

Beste elizgizon atxabaltar bat ere hil da. **Jose Mari Armentia Murua** Venezuelen hil zen 77 urte zituela joan den otsailaren 16an. Jose Mari 1951. urtean joan zen Venezuelara, eta irakasle lanetan eman du bere bizitza. Gizon langilea eta oso maitatua zen. Datorren zapatuan arratsaldeko 19:30ean bere alde meza emango da parrokiari.

## ■ ESKIATZERA DEMASEKO KOADRILA

Nahikoa komeri izan zituzten Murruxiorekin eskiatzera joan ziren 67 lagunek. Frantziako Gavarnie estaziara bidean atera zuten honako argazki hau. Edurraren ondorioz, autobusa bidean gelditu, eta ezin igo ibili zen. Hala ta be, gero eguraldi ederra izan zuten lagun, eta edurra egin barri, gustura aritu ziren denak eskiatzen.



## BERALAN KRISTALDEGIA



- ◆ Komunerako altzari eta manparak
- ◆ Horma armairuak
- ◆ Beirate artistikoak
- ◆ Salarako mahaia
- ◆ Beirate "fusing"ean kalitate handia

Herriko plaza, 8 behea ☎ 943 79 81 78 / 6700997274



lazko urritik  
Aretxabaletan zabalik

Informaziorako deitu 943 71 27 80

- Mekanografia
- Ofimatika
- Internet
- Enpresendako ikastaroak



## Nondik nora...

Goizean goiz jaikitzen naiz indarberri-turik eta aurpegi berri bat eskainiz egu-nari, baina egunaren ilunabarra ez da beti hain argitsua izaten. Asmoak, gogoak, itxaropenak, ilusioak... indar-tzen dute bizitza, baina esku ezkutu batek, deskuidatu orduko, estali dezake dizdiraren printza, eta orduan iluna, etsipena, nahigabea... nagusitu daitez-ke.

Inoiz baino gehiago, bizia guretzat erronka bihurtu da. Aldaketak epe oso laburretan ematen dira; aurrerapenak (arlotan: biologia, teknologia, ekonomia, zientzia...) izugarriko abian-dan gauzatzen dira. Eta orduan duda hau datorrit: neurri hortan bertan giza-kia gizakiago egiten ari ote da? Askeak garela diogu, baina ia gehienak egiten dutena burutzen dugu; giza-eskubide-ak defendatu behar direla aldarrikatzen dugu, eta, guk geuk, bestea menpe-ratzen dugu; globalizazioa salatzen du-gu, eta besteak geure irudi bihurtu nahi ditugu; askatasunaren alde min-tzatzen gara, baina nik bezala pentsa-tzen ez duena salatu eta epaitu egiten dut... Badirudi, besteak aldatu behar dutela, baina ahazten zaigu norberaren etxeko atea irekitzea eta han egosten ari dena ikustea.

Zaharturiko bihotza berritu beharra daukagu. Horretarako, neure buruari galdetu beharko nioke: Zertarako bizi? Noruntz noa? Pozik bizi naiz? Gogoeta honetan mamitzen diren erantzunek jarrera, erizpide... berriak sor ditzakete.

Ez dakit asmatuko dudan nire bizi-tzaren harmailak igotzen, baina jakin badakit eskuartean daukadala giltza, eta giltza hori ez dut galdu nahi. Des-kubritzeko gai izango ote naiz zein den sarraila egokiena? Amaitzeko, as-paldiko gizon ospetsu baten hitzak: "Badoaz gizonak txango eginez, mendi garaiak, itsas olatu izugarriak eta ibaien urbide oso zabalak eta izarren ibilera eta itzuliak harriturik begiratze-ra, eta beren buruak ahazten dituzte".

Arantxa JAKA



**MAPFRE**  
Aseguroak

Errekararren, 3  
Tel.: 943 77 11 76

Herriko  
plazan

**ARTANO**

*Girorik onena*

Herriko plaza, 3 • 943 79 62 75



FELIX  
PAGALDAY

Laborantza tresnak  
Ongarriak- Haziak

Mitarte, 7 behea  
☎ 943 77 00 33/79 42 56

**HAURRAK**



UMEENDAKO  
MODA

Lezama merkatal  
zentrua, 15  
943 77 14 86




# ARATUSTEAK

## atxabaltarrok, ondo pasa

### 2001

TXIN TXIN, TXIN TXIN,  
MAHATSA HELDU GABE DAGO  
TXIN TXIN, TXIN TXIN,  
BAINA HELDUKO DA.  
TXIRIBITO TA ANDREA  
JOAN ZIREN JATERA  
TXIRIBITO HASERRETU TA  
BOTA ZUEN LAPIKO.



**EGUZKIGRAF**  
inprimategia



aratusteak ondo  
pasa ditzazuela

Basabe, 2 ☎ 943 77 00 81  
Loramendi, 6 ☎ 943 77 17 19

*Aretxabaleta*  
*okindegia*





*Udaletxeko lana utzi arren, ez da samurra Jose Mari Armentia ezer egin barik egoitea. Orain, Xabide enpresako gerentea da. Hala ere, Udalean egondako egunak gogoratuz, garai baten herriarekin hartu zuen konpromisua ez duela ahaztuko adierazi digu*



## Jose Mari Armentia

### Udal zinegotzi ohia

■ **Orain udaletxetik kanpo zaudela zer edo zein botako duzu faltan?**

■ Duda barik, pertsonak, hango teknikari eta zinegotziak botako ditut faltan. Baina, esan beharra daukat Udala utzi arren, garai baten herriarekiko hartu nuen konpromisoa ez dudala sekula utziko. Orain ere, prest egongo nintzateke edozertan nire laguntza emateko.

■ **Zerk bultzatu zaitu udaletxea uztera?**

■ AZK enpresak, Arabako Xabiderek elkarlanean komunikazio proiektu barri bat jarri du abian. Nik proiektu horretako koordinazio lanak egiteaz gain Xabideko gerentzia ere eramango dut. Horrek guztiak ez dit uzten udaletxean nituen lanak behar bezala

egiten. Beraz, zerbait uztekotan, udaletxeko lana utzi dut.

■ **Nola baloratuko zenituzke udaletxean egondako bi urteak?**

■ Beno, hasieran jarritako helburu batzuk bete dira, eta jakina, beste batzuk nire ondorengoak beteko ditu. Kirol sailean adibidez, Asier Mujika kirol teknikariak lan handia egin du. Kiroletxean ekipamendu aldetik gauza asko lortu ditugu berari esker. Hala ere, oraindik Kirol arloan gauza asko dago egiteko. Adibidez, kirola, kultura eta aisialdiko ekintzak baturako dituen zentrua.

■ **Kirolari dagokionez zer nolako herria da gurea?**

■ Herri zatitua dela uste dut. Ni, udaletxeak bultza-

tuta, herrian kirol klub bakarra sortzearen aldekoa naiz Oñatiko Aloña Mendi eredutzat hartuta, adibidez. Oso arraroa eta zentzugabea iruditzen zait gurea bezalako herri txiki batean 2 mendi talde egoitea. Horregatik herriko kirol taldeak animatu gura nituzke ideia horretan lan egin dezaten.

■ **Lan barriarekin politika mundua alde batera utzi duzu?**

■ Ez, ez dakit noiz arte jarraituko dudana, baina oraindik Atxabaltan EAKo lehendakari izaten jarraitzen dut.

■ **Aurten EA eta EAJ koalizioan lan egin duzue. Nola joan da elkarren arteko harremana?**

■ Oso ondo, inongo arazo

barik ibili gara. Gainera esan beharra daukat, udaletxean lan egin dugun alderdi guztiok helburu berdinarekin egin dugula lana, herria eta herritarrak izan dira gure helburu. Beraz, gure arteko harremanak oso onak izan dira.


■ **Lan ugari egin dituzue gaur arte, zein izan duzue gustukoena?**

■ Nik txikitik futbolari izan nahi nuen. Hortik aurrera egin ditudan lan guztiak gustuko izan ditut. Beti kirol eta aisialdiarekin lotutako lana egin dut, beraz nolabait nire afizioekin jarraitu dut.

■ **Inoiz bueltatuko zara barriz ere udaletxera?**

■ Oraingoz nire helburu profesionalak bete nahi ditut. Gero geroakoak!





Copreciren eraikina egiteko lehenengo lanak 1962. urtean hasi ziren.

# Copreci historian barrena

***Duela 40 urte eman ziren Copreci sortzeko lehen pausoak. Ordutik gaur arte, gauza asko aldatu dira. Horiek guztiak batu ditu erakusketa batean Murrukixok Argazki artxiboarekin elkarlanean. Erakusketa Martxoaren 1etik 15era bitartean izango da ikusgai. Bitartean, hona hemen argazki horiei eta Pedro Mendieta gogoetei esker eginiko erreportajea.***

**P**edro Mendieta, Luis Mari Ortubai, Luis Mari Arana, Alberto Beltran de Heredia, Luis Maria Urcelai eta Jose Mari Sarasua izan ziren Copreciko sortzaileak. Pedrok gogoan duen moduan, bere etxean, egin ziren lehenengo bilerak. Hasiera batean,

inongo garantia barik 120 pertsonen jarri zuten Copreci sortzeko dirua. Bakoi-tzak, 120.000 pezeta jarri zituen batz-beste, ordurako dirutza handia duda barik. Behin kapitala edukita, eraikina egin behar zen eta hortantxe hasi ziren guztiak. 1961. urtean lu-

rrak erosi zituzten. Hasiera baten 40.000 metro karratuko zelaia erosi zituzten San Martin baserriko, Urcelai familiari eta Iraeta ahizpei. Eraikina egiteko lehenengo lanak 1962. urtean hasi ziren. Ordurarte, proiektua egin eta beharrezko lizentziak lortzen

ibili ziren. Azkenik 1962ko irailean zabaldu zituen Copreci lehenengo aldi bere ateak. Orduan, 3 soilairu eta 500 metro karratuko eraikina zen. Gainera argiz josi zuten lantokia, horregatik Atxabaltarren akorduan herria argiztatu zuen Coprecik.





Argazkiak: Argazki artxibo taldea

Copreci 1962. urtean

Pedro Mendieta eta gaintzeko sortzaileak, eguneroko 7 orduko lana egiten ari ziren urte haietan. Bata zuriarekin eta lagun giroan egiten zuten lan. Hala ere, kazkazurrean Copreci sortzeko proiektua zuten eta dena utzi zuten horregatik. Hori dela-eta, norbaitzuk proiektua martxan jartzen hasi zirenean, zoratuta zeudela ere pentsatu zuten. Baina, Pedrok eta bere lagunak erabakia hartu zuten eta tinko eutsi zioten Copreci sortzeko ideari.

#### Lantegi autonomoa

Proiektua egin eta José Ma-

ri Ormaetxeari aurkeztera joan zirenean, honek Copreci orduko Ulgorren parte bat izatea proposatu zien. Hauek, barrez, garbi zuten lantegi barria autonomoa izango zela. Ez zekiten zein produkturik arituko ziren ere, baina, ez zuten inoren



Copreciren aurreneko eraikina

menpe lan egin gura. Nor-tasun propioa zuen lantokia gura zuten.

Horrela, 1962. urteko irailean lortu zuten lantegia martxan jartzea. Orduan, 13 lagun hasi ziren lanean kontrol arloko piezak egiten. Lehenengo faktura, barrez, ez zuten urte


amaiera arte egin. Coprecik, gestio plana ere egin zuen lehenengo urte haietan. Mendieta gogoratzen duenez, aurreikusitako sarrerak bikoiztu egin ziren. 26 milioiko sarrerak espero eta bikoizta lortu zuten. Horrela, ohartu orduko Coprecik 400 langile zituen. Gehienak gazteak eta emakumezkoak gainera. Horregatik Copreciko langileak Espainiatik kanpo lizentzia bila joaten zirenean, kanpotarrak harriturik gelditzen ziren horren langile gazteak ikusita. Garai hartan ezkon agentzia moduan ere, ospetsu bihurtu zen Copreci.

## “1962. urtean lantegia martxan jarri eta 13 lagun hasi ziren kontrol arloko piezak egiten”



Argazkiak: Argazki artxibo taldea

Coprecik laster haunditu zuen bere eraikina



Herriarekin batera haunditu zen Copreciren lantokia





Argazkiak: Argazki artxibo taldea

Espainiako Ministerioako kideak Coprecirentzako diru laguntza ematen

Izan ere, horrenbeste gazteren artean, bikote ugari batu eta ezkondu ziren lantegiari esker.

#### Langileen plana

Hamar urteren bueltan, Coprecik 1000 langile zituen, baina gehiagoren beharra ere bazeukan. Eskoletatik ikasle promozio bariak urten ahala hartzen zituzten lantegirako. Herrian dagoeneko, ez zegoen ez emakumerik ez gazterik lanerako, beraz, kanpotarrak etortzen hasi ziren. Errioxatik, Zamoratik, Galiziatik... Espainiako probintzia guztietatik hasi zen jendea etortzen.

Orduan, Copreciko Batzar Orokorrak egoera hori aldatzeko erabakia hartu zuen. Konturatu ziren kanpotarrei lana emanez etorkinei bideak zabaltzen ari zirela, eta era berean, Euskal Herriaren nortasuna eta kultura galtzeko arriskuan zegoela. Egoera hori



Langileak kontrol arloko piezak egiten

aldatzeko Batzar Orokorrak plan bat egin zuen. Horri esker, eta langabezia gehien non zegoen ikertu ostean, Ordizian zabaltu zuen Coprecik Orkli lantegi barria.

#### Trenarentzako zubia

Garai batean, Coprecira

heltzeko trenbidea pasatu beharra zegoen. Egutero, trenbidearen pasaguneak susto edarrak ematen zizkien langileei, beraz gaineratik pasatzeko zubia lehenbailehen egitea pentsatu zen. Horretarako dirutza handia eskuratu eta tramitazio guztiak egin ostean, eraiki zen zubia. Baina, kontua da, zubia bukatu eta handik hilabete gutxira trena kendu zutela betirako. Inbertsio izugarria egin ostean, tonto aurpegi ederra gelditu zitzaizen Coprecikoei. Zubia inongo funtzio barik gelditu zen, eta urte batzutura bota egin zuten.

## “Coprecirako zubia egin eta handik hilabete batzutura trena kendu zuten betirako”

### Copreci gaur egun

Coprecik gaur egun, Aretxabaletako lantokiaz gain Mexikon eta Txekiar Errepublikan ditu lantegi filialak. Aurtengo gestio planaren arabera, Aretxabaletan batzaz-beste 925 langile arituko dira lanean, eta 17.487 milioiko salmentak eta 1.268 milioitako inbertsioak aurreikusten dira. Mexikoko lantokiak, barrez, batzaz-beste 353 langile izango ditu. Salmentak 16.462 milioitakoak izatea espero da. Inbertsioei dagokierenez, 209 milioi inbertitu nahi dira. Azkenik, Zercon, Txekiar errepublikako lantokian, batzaz-beste 120 langile ibiliko dira eta 1.005 milioiko salmentak eta 161 milioiko inbertsioak egitea aurreikusten da aurtengo ekitaldian.

Urte amaieran, Coprecik beste lantegi bat jarriko du mar-txan Brasilen.








## Mendia

Zaraiak Arabako itzulia hasiko du. Domekero-domekero joaten dira mendira Zaraia mendia taldeko kideak. Tartean hainbat itzuli ere egiten dituzte. Iaz Gipuzkoako itzulia egin zuten, eta aurten Arabako egiteko asmoa dute. Martxoaren 4an ekingo diote aipatutako itzulari. Lehen etapa Landatik Etxaguenera bitartekoa izango da. Horren ondoren, hilean behin itzuli horren etapa bat egin ez joango dira.



## Korrika

Joseba eta Ramon gertu Argeliako maratoirako. Datorren zapatuan Argeliarako bidea hartuko dute Joseba Larrinagak eta Ramon Erañak. Ume Saharauei laguntzeko antolatu den maratoiaren zati bat korrituko dute bertan. Dena dela, bidaiaren helburua ume Saharuien egoera ezagutu eta laguntzea denez, hemendik medikamentuak, umeentzako eskolako materiala eta garbitasunerako produktuak eramango dituzte.



## Txirrindularitza

Iban Sastrek bigarren urtea profesionaletan. Otsailaren 3an hasi zuen Iban Sastrek denboraldia. Aurtengoa profesionaletako bigarren urtean izango du Festina txirrindulari taldean. Iazko denboraldian lan txukuna egin zuen atxabaltarrak, eta aurtengoan esperientzia gehiago izango duenez, denboraldi polita egitea espero du. Denboraldia Mallorkan estreinatu zuen, eta aste honetan Andaluziako itzulian izan da.



## Igeriketa

Igeri ikastaroa 60 urtetik gorakoentzat. Udaleko kirol zerbitzuak 60 urtetik gorakoentzako igeri ikastaroa antolatu du. Herriko jubilatuek egindako eskarri erantzunez egingo da ikastaroa. Martxoaren 5etik aurrera emango da, 11:15etatik 12:00etara; guztira 20 ordu. Ikastaroa eman ahal izateko zortzi lagun egon beharko dira gutxienez. Informazioa eta izen ematea Basotxon edo eta kiroletxean egin daiteke.

**Aurreko bi denboraldiak Ulma-Cegasa taldean egin ondoren, Olarra taldean izango dugu aurten Asier Atxa 21 urteko txirrindularia. Lana eta ikasketak alde batera utzita, txirrindularitzan burubelari sartuko da. Datorren astean hasiko du denboraldia.**

■ **Ulma-Cegasako afizionatuetan egindako bi urteak nola baloratuko zenituzke?**

■ Bi urteak oso positiboak izan dira. Taldean giro ona egon da, eta guztiok maila antzekoa genuenez, lagun talde bat moduan aritu gara karreretan, presio handi barik. Lortutako emaitzak ere nahiko onak izan dira. Karrera askotan aurrean aritu naiz, lehen posturik lortu ez dudana arren, bigarren izan nintzen bi probetan.

■ **Zein izango da iaztik onaldaketarik nabarmena?**

■ Aurtengo denboraldian aldaketa handia igarriko dut. Olarran txirrindulari onak daude, eta presioa handiagoa izango da. Era bere-

an, afizionatuetan hirugarren urtea denez, orain arteko esperientzia alde izango dut.

■ **Beste talde batzuetako eskaintzak jaso dituzu?**

■ Bai, batetik, Ulma-Cegasan jarraitzeko aukera izan dut, eta bestetik, Saunier Duval, Olarra eta Torrezabal taldeen eskaintzak ere jaso ditut. Azkenean, Olarrara joatea erabaki dut, betidanik gustuko izan dudana taldea delako.

■ **Zein helburu jarri diozu zeure buruari?**

■ Aurrean ibili gura dut, eta karreretan nabarmentzen hasi. Ondo banabil taldekiek lagundu egingo naute, beste batzuk hobeto ibiliz gero, neuk egin beharko ditut laguntzaile lanak.

■ **Txirrindularitzari betebetean eskainiko diozu denboraldia.**

■ Bai, iaz modulo bat bukatu

## Asier Atxa

### Olarra afizionatu taldeko txirrindularia

nuen, eta aurten txirrindularitzan burubelari sartzea erabaki dut. Afizionatuetan maila handia dago, eta emaitza onak lortzeko, ia beharrezkoa da bete-betean mundu horretan sartzea. Afizionatu ugari dago nire egoeran, lana eta ikasketak alde batera utzita.

■ **Zein ezaugarritako txirrindularia zara?**

■ Danetik apur bat. Sprintean azkarra naiz, eta igoeratan ondo moldatzen naiz.

■ **Sakrifizio handia eskatzen duen kirola da?**

■ Bai. Astean egun batean izan ezik, beste guztietan entrenatzen dut. Horrez gain, juergak alde batera utzi behar dira, beste zainketa mota batzuk ere kontuan izan, eta elikadura apur bat zaindu.

■ **Konpentsatzen du sakrifizio horrek?**

■ Bai, bestela ez nintzateke nagoen lekuan egongo. Ni gustura nago oraingoz, eta txirrindularitzak betetzen nauen bitartean jarraitzeko asmoa dut. Gauzak ondo joaten badira, izugarritzko satisfazioa lortzen da, nahiz eta momentu txarretan alderantziz izan. Sakrifizio handia izan arren, nire kasuan behintzat merezi du.





## ■ ARLUTZ B XAKE TALDEARI ZIGORRA

Gipuzkoako Xake Federazioak zigorra jarri dio Arlutz B xake taldeari. Taldea lehen mailara igotzeko fasea jokatzeko ari zen, baina txoferrik ez zutela eta, ez ziren azken bi partiduetara aurkeztu. Horren ondorioz, Xake federazioak gogor zigortu du taldea. Datorren urtean hirugarren mailan jokatu beharko dute, bigarren mailan beharrean. Aurtengo denboraldian txofer arazoz gain, jokalarari arazoak ere izan ditu Arlutz B taldeak. Hori ikusita, datorren urtean taldea sortzen bada behintzat, bost jokalarikoa izan beharko da, eta bi taldekidekotxea izan beharko dute.

## ■ ARLUTZ A MAILA

**MANTENDU** Joan den aste-bukaeran bukatu zuen Arlutz A xake taldeak Euskal liga. Azken norgehiagokan Iruñeako Orvina taldea garaitu zuten 3-1eko emaitzaz. Ondorioz, maila mantentzea lortu dute taldekideek. Izan ere, ligako azkenetara mailaz jaisteko arriskua izan dute, eta larri ibili da taldea. Era batean behintzat euren asmoak bete direla esan dezakegu. Maila mantentzea baitzen aurtengorako ipinita zuten helburua.


## Udako futbol sailak kide barriak behar ditu elkarteak zuzentzeko

Azken urteotan Udako futbol saileko zuzendaritzako kideak ez dira barriztu. Elkartek hautagaiak aurkezteko epea urtero zabaldu izan duen arren, elkartearen zuzendaritza eramateko ez da hautagai barririk aurkeztu. Horrela, Bixente Etxeandiak sei urte jarraian egin ditu presidente lanetan, eta beste kide batzuk hamar urtetik gora daramatzate zuzendaritzan. Aurten ere berdin gertatuko den beldur dira zuzendaritzakoak. Egoerak, hala ere, ezin du horrela luzaroan jarraitu. Zuzendaritzako kideak nekaturik daude horrenbeste urtetan hango lanak egiteaz, eta herritarrei mezu larria bidaltzen diete. Udako zuzendaritzak jende barria behar du, ideia eta asmo barriak ekarriko dituen jendea. Aldaketa barriak onar-

tzeko gertu daude, eta hautagaiak aurkezteko epea martxoaren 30a arte zabalik dago. Herriko futbolak arrera jarrai dezan gura badugu behintzat, herritarron konpromezua beharko da.

### Lan egiteko jendea behar

Teorian behintzat elkarteak zuzendaritza bi urtetik bi urtera barrizten da. Bi urte horietan lan dexente izaten da elkarteko kideentzat. Rafa Etxeandiak adierazi digunez, hamabi bat lagun beharko liriateke futbolak sortzen dituen lan desberdinak ondo gestionatzeko. Batzordekideak astelehenero biltzen dira, baina horrez gain, eguneroko lana dago. Kontuan izan, gaur egun Udak bederatzi futbol talde dituela, nahiz eta batzuk Almen eta Uda artean koordinatu.



Udak bederatzi futbol talde ditu, batzuk Almenekin koordinatuta

## ■ KIROLETXEKO KANTXA ETA FRONTOIAREN ERRESERBA ZOZKETARA

Azkenaldian ugaritu egin dira kiroletxean kantxa eta frontoia erreserbatzeko eskariak. Hori dela eta, kantxa eta frontoia erreserba orduak zozketara ateratzea erabaki du udal txeko kirol zerbitzuak. Udal kiroletxea eraikuntza publikoa dela kontuan izanik, beraien eskaerei erantzuteko modurik egokiena orduak zozketara ateratzea dela pentsatu da. Lehen zozketa datorren martxoaren 1ean egingo da, arratsaldeko 18:00etan kiroletxean bertan, eta herritar guztiek parte hartu ahal izango dute bertan. Zozketa hiru hiletarako egingo da, martxoaren 5etik maiatzaren 27ra.

## ■ BIHAR AURKEZTUKO DU TALDEA DORLETAKO AMAK

Dorletako Ama txirrindulari taldeak bihar goizean egingo du aurtengo denboraldian arituko diren txirrindularien aurkezpena. Aurten hamabost txirrindularik osatuko dute taldea. Goizeko 10:30ean Dorletako santutegian txirrindularien zaindariari lore eskaintza egingo zaio. Gero Apotzako elkartearen taldeen aurkezpena eta luntxa izango dira.



# Lubia

Poltsak • zapatak • gerrikoak

Mitarte 14 • ☎ 943 79 16 00 ARETXABALETA  
Biteri 1 • ☎ 943 79 66 53 ARRASATE

## Jauregi Okindegia

Otalora, 10  
Tel.: 943 79 57 47

**Bereziki:** Harategia  
Urdaitegia  
Fruitategia

## IMANOL JANARI DENDA

Gorbea kalea ☎ 943 79 05 83



# Taberna eta jatetxeen gida

## Zaraia taberna

**MANTEKA  
ANAIK**

*Goizeko 5,30etik  
zure zerbitzura*

Araba Ibilbidea, 20 • 943 79 88 95

## Haizea taberna



Kafetegia  
eta  
taberna

**H A I Z E A**

Mitarte, z/g • ARETXABALETA  
Tel.: 943 79 88 60

## Amets taberna



Taberna eta kafetegia

Iparagirre, 4 • 943 79 01 29

## Gurea taberna

*Eguneko menuak  
plater konbinatuak*

**GUREA**

Durana kalea • 943 79 20 64

## Basabe jatetxea

Menu eta afariak



Basabe poligonoa • 943 79 91 84

## Arlutz taberna



MITARTE, 16 • ARETXABALETA • TFNOA.: 79 32 34

*Gustoko musika*

Mitarte, 16  
Tel.: 943 79 32 34

## Ezkutu taberna



Mitarte kalea, 17 • ARETXABALETA • Tfnoa. 79 00 00

Zatoz gure musikaz gozatzera

Mitarte, 9 • 943 79 92 01

## Artano taberna

Herriko plazan

**ARTANO**

*Girorik onena*

Herriko plaza, 3  
943 79 62 75

## Mendiola erretegia

ESKORIATZA



Tfno 714 345

Bazkariak  
eta afariak

Astelehenetan  
itxita

Mendiola auzoa • Eskoriatza • 943 71 43 45

## Baster alde jatetxea



SASOIKO  
JAKIAK  
GIRO  
ONENEAN


Galartza auzoa  
© 943 79 24 58  
ARETXABALETA

## Matikua jatetxea



Azanza auzoa ♦ Tel.: 943 79 16 68

## Mitartegarai



Arientza auzoa  
Aretxabaleta  
Tel.: 943 79 17 51



## Josu taberna

*Josu  
harategia  
taberna*

- Urdaitegia-gozotegia
- Kroasantegia
- Gertatutako janariak

Mitarte, 1  
Tel.: 943 77 03 08



## Taberna Berri



Durana, 26 • ARETXABALETA  
943 79 20 67

## Urbaltz taberna




Mitarte, 21 behea  
Tfnoa.: 79 79 79  
ARETXABALETA

*ondo pasa aratusteak*



## 2. IBILBIDEA ARETXABALETA-SAILLUENTEKO ERMITA-APOTZA-ASENSIOMENDI-UNTZILA-NAPARRENA BASERRIA-ISURIETA-ARETXABALETA

Luzera: 10,8 kilometro - Denbora: 3 ordu 50'



Untzilara doan bidetik abiatuz, Isurieta auzora doan bide gurutzean, ezkerretara dagoen pista hartuko dugu, Lausittako 11. etxebizitzaren (Egusentia izena du etxeak) aldamenetik (235 m.). Pistan gorantz egingo dugu pinu artetik. Aldatz luze eta gogorra igo, lautada batera iritsi arte. Hemen eskumatarara dagoen xendatik abiatuz, Sailluenteko ermitara iritsiko gara. Iturri bat dago bertan.

Sailluentetik Apotzaetxebarri auzoa herriaz lotzen duen bidetik aurrera joko dugu, Orueta, Unanue eta Kortazar baserriak pasatuz. Telefono mugikorren hiru antena aurkituko ditugu aurrerago. Behin antenak dauden lekura iritsita, eskumatarara dagoen

pista hartu, eta San Bernabe ermittara helduko gara.

Apotzako eliza begibistan dugula, bertarantz joko dugu. Apotzako sarreran, "Euskal hilerri" ezaguna dago. Hemendik Apotzako Gaztaiñu izeneko baserriraino asfaltatutako bidetik joango gara. Aipatutako baserrira iritsitakoan, bidea alde batera utzi eta fundizioko hondarrak botata dituen bidetik abiatuz, bide desberdinak dituen gain batean izango gara laster. (Ikus beheko irudia)

Jarraitu beharreko bidea hartu ondoren (439 metro eta 0:53'ko denbora), pinu artetik egingo dugu hasierako tartea. Aurrerago aldatza hasiko da, eta gogortuz joango da poliki-poliki. Gora igotakoan bidea hainbat norabidetan zabalduko da. Pago batean Ama Birgina baten irudia dago, lore artifizialez apaindua. (Latagain 555 metro, 1:05').



Goruntz doan pistatik jarraituko dugu. Paisaje zoragarriak ikus daitezke bertatik: Eskoriatzako Bolibar auzoa, Leintz Baileraren goikaldea, Kurtzebarri, Aitzorrotz... Ondoren, lautada batera iritsiko gara. Hemen eskumatarara dagoen bidea hartuko dugu, eta metro batzuk aurrerago, eskumatarara, Asensiomendiko Gurutzea dago. Aurrera jarraituz, arbolak moztearen ondorioz, hain garbi markatuta ez dagoen bide batetik abiatuko gara. Laster bide zidorra agertuko zaigu, eta metro batzuk aurrerago, Asensiomendira eta San Adrianera doan bidegurutzean izango gara. Guk Asensiomendiko bidea hartuko dugu, segituan, Asensio gainera iristeko.

Gain horretatik (665 m.), 5 minututara, aldatz txiki eta gogor bat igo eta, Asensiomendiko gurutzean izango gara (684 m.). Aramaio aldera paisaje zoragarriak daude: Arangio, Tellamendi, Udalaiz, Anboto eta Murugain mendiak, eta Aramaioko bailara eta auzoak besteak beste.

Asensio gainetik, hego mendebaldeko norabidean beheranzko bidea jarraituko dugu, lurrezko bidezidor batetik. Pista hau beste zabalago batekin elkartuko da laster. Azken honetatik Gipuzkoako itzuliaren GR-21a pasatzen da. Eskumatarara hartuz, beherantz jarraituko dugu, Ajaostako gainera iritsi arte. Bidegurutze bat



Murrukixoko mendi elkarte



Zaraia mendi taldea



dago bertan.

530 metrotan gaude (1:50´). Eskumako bidetik jarraituko dugu, txabola baten aldamenetik pasatuko gara, eta GRaren markak jarraituz, Untzilako elizara iritsiko gara aurki. (485 m.).

Untzila gainetik, asfaltatutako bidetik, Murugaineko barrenerako norabidea hartu, GRa jarraituz. 500 metrora gutxigorabehera, ezkerretara, GRa eta Murugainera doazen bideak utziko ditugu. Guk bidea jarraituko dugu, Makiena, Nafarrena eta Muru baserrietara iritsi arte. (505 m.) (2:40´).

Baserri hauen aurretik pasatuko gara, eta lurrezko bidetik aurrera egingo dugu. Murugain mendia inguratuz, Murube baserritik (Etxezuri) Murugaineko antenetara doan bidez bat egingo dugu. Hemendik baserriraino jaitsiko gara, eta asfaltatutako pistatik jarraituz, Nafarrena baserriraino helduko gara. Iturri bat dago




Apotzako hilerrria bisitatuko dugu ibilbidean

(485 m.) (3 ordu).

Iturritik eskumatara dagoen pista hartuko dugu. Beherantz jarraituz, bidegurutze batera iritsiko gara (ikus eskumako irudia).

Bidegurutzean eskumatik jaisten



Aurrean Aramaioko Untzila auzoa eta Murumendi

den bidea hartu, eta berau jarraituz, ganaduentzako metalezko bi ate pasa ondoren, Ametza Garaiko baserri-runtz abiatuko gara.

Ondoren asfaltatuta dagoen pista bat jarraituko dugu, Isurietako Aurrekoa baserrira iritsi artean. Bide bazterrean iturri berriztu bat dago. Gero bide nagusitik herrira jaitsiko gara.

\* Bide nagusia hartu beharrean, pinu arteko bidezidorra har daiteke kalera jaisteko.

**San Migel erretegia**

Apotza auzoa, 23  
Eskoriatza • 943 71 48 71

**ANDRA MARI**  
Aholkularitza

- Fiskala
- Kontablea
- Juridiko/laborala

Andra Mari Auzunea, 3  
☎ 943 79 29 26

**Mobiliario ARENAZA**

- ALTZARIAK
- DISEINUA
- APAINKETA

Bizkaia, 1 - Tel.: 943 79 08 07  
ARETXABALETA

**Marti**

Bere bezeroen zerbitzura

Mitarte, 16  
Tel.: 943 79 01 72





### Kirolarien herria

Lehenago ere esana dut nik, gure herriak kirolzale ugari dituela baina orain ere, berdina esatera noa. Esatera noan berri gehientsuenak, kirolarekin lotutakoak dira, hala ere, gure herrian juer-gak egiten ere ez gara makalak!!!

Hasi, uretatik hasiko naiz. Pasa den irailean, igerileku-ko ordutegia zabaldu zela eta, **Pedro Balenciagari**, laguntzaile bat jarri zioten. **Gaizka Agirre** da sorosle hori. Arratia bailarako bizkaitarra dugu, Agirre pilotariaren anaia hain zuzen ere. Nik neuk behintzat, segituan igarri nuen haren anaia zela, igual igualak dira eta.

Kirol etxetik atera gabe, baina piszinatik kanpora, moda barriko kirolzaleak ari dira egunotan. Izugarritzko arrakasta izan ei du patinaje ikastaroak. Hogei laguneko taldea osatu da eta **Mikel Morras** dugu irakaslea. Sei lagun kanpoan gelditu behar izan dira leku falta zela eta. Atxabaltan bizi den arrasatearra dugu Mikel, eta udaberrian, Urkulura patinatzerara joateko erakusten ari da. Hurrengo ikastarorako neu ere animatu egingo naiz, akaso.

Oraindik kirol etxearen inguruan, aipatu, **Joseba Larrinaga** eta **Ramon Eraña**, zapatuan aterako direla Argelia aldera. Esan bezala, bertako maraitoian korrika

egiteaz aparte, herri haretako egoera, hurbilagotik ikustera joango dira. Zortea izan dezatela bidaian, eta zer esanik ez, eraman diezaietela bertakoei ere, zorte edo zoriontasun apur bat behintzat.

Eta orain urrutiago joanez, joan den asteburuan eskiatzera joan ziren Murruxok antolatutako autobuskada bat. Autobus bat beteko ote zen beldur ziren eta gero gainez egin, eta bi pisotako autobusa hartu behar. Hori maila hori!!! Komeriaren batzuk ere ibili ei zituzten bidean zegoen elurra zela eta ez zela baina antolatzaile lanetan ibili zirenek, aise dominatu zuten egoera.

Beno eta kirola bazter batera utziz, edo hobe esanda, hurrengo alerako utziz (ziur naiz eta orduan ere izango dudala gai horretaz zer esanik) gure herrian ezagutu beharreko beste pertsona baten barri eman behar dizuet. **Leire Okaranzaren** hutsunea, **Olatz Oloso** bergararrak beteko du Lora-mendi elkartearen, eta bere lana, merkatariekin lanean aritzea izango da. Eta besterik ez, nire kukumarro jantziari azken ikutuak ematea besterik ez zait falta. Aurtengoan ez nau inork ezagutuko, eta ea zenbaiti jo behar dizuedan adarra... Argi ibili...

*M. J. Aritzaga*



### Bihotz ergelak

Carlos Trillo, Laura Scarpa

Jean François Sauré argitaratzailea, 2001. (Gazte kontuak ; 1)

Komiki hau sail bateko lehen alea duzue, jarraipena izango duena. Bertan, komikilaria izan nahi duen gaztea da protagonista, baina bere bizitzan beste pertsonaia mordo bat gurtzatuko dira. Istoria, mutil hau etxe berrira aldatzearekin hasten da. Bere ama dibortziatuarekin bizi da, bere aita bera baino gazteago diren neskekin dabilen bitartean. Auzokide berriak ere nahastuko dira istorioan, bi ahizpa guztiz kontrakoak, lehenago pisu horretan bizi zen norbaiten neskalgun misteriotsua eta abar...

Gaur egun komikiak oso gutxi argitaratzen dira, eta are gutxiago euskaraz. Badirudi genero hau krisian dagoela, horregatik txalotzekoa da komiki bat euskaraz argitaratzea. Komiki zaleok badugu, beraz, zer irakurria eta bigarren liburua noiz aterako irrikan egongo gara.

Joseba Lopez de Armentia


LIBURUTEGIKO TXOKOA

### EUSKARA ZUZENTZEN

Hona hemen gaurko akatsa.

- Galdera eta erantzun okerrak:
- Zerekin mozarrotuko zara? Pailazoarena
- Zerena mozarrotuko zara? Pailasoz
- Zerez mozarrotuko zara? Sorginarena
- De qué mozarrotu bizara? De pailazo

- Galdera eta erantzun zuzenak:
- Zela mozarrotuko zara? Pailazo
- Nola mozarrotuko zara? Sorgin





## OTSAILA

## 23 EGUAKOTXA

## ■ KONTZERTUA

Serial Number eta DJ Kir-in-ek kontzertua eskainiko dute Aretxabaletako gaztetxean 23:00etatik aurrera.

## 24 ZAPATUA

## ■ DORLETAKO AMA TXIRRINDULARI TALDEAREN AURKEZPENA

Goizeko 10:30ean lore eskaintza egingo zaio Dorletako Amari Dorletako santutegian. Ondoren Apotzako elkarte txirrindulari taldeen aurkezpena egingo da, eta ondoren luntxa.

## ■ KONTU KONTALARIAK GAZTETXEAN

Virginia eta Baltziskueta Nafarroako kontu kontalariak izango dira gaztetxean 20:30etik aurrera.

## 25 DOMEKA

## ■ ARATUSTEAK

Egun guztian zehar koardrilen desfilea izango da herriko kaleetan.

## ■ DJak GAZTETXEAN

Arratsaldean Iñigo Txanpaina eta Ima Txill Aut DJak egongo dira gaztetxean.

## KALEJIRA

"Presoen eskubideen alde presoak Euskal Herrira" lemapean kalejira egingo da, herriko plazan 18:00etan hasita.

## 27 MARTIZENA

## ■ MARTIZEN KARNABALA

Incansables txarangak alaituko ditu kaleak arratsaldean. Gauean Auskalo taldearekin berbena izango da Mitarte kalean. Gauean afaria izango da Taberna Berrin.

## MARTXOA

## 1 EGUENA

## ■ BASOTXOKO ZAIN-DARIAREN EGUNA

Basotxoko jubilatuek Aingeru guarda, Basotxoko zaindariaren eguna, ospatuko dute. Goizeko 11:00etan meza izango da Basotxon. Ondoren Taberna Berrin bazkaria.

## 1-15

## ■ ARGAZKI ERAKUSKETA

Argazki artxiboak Murruxiko mendi elkar-tearekin elkarlanean, Copreciri buruzko argazki erakusketa antolatu du. Egunero egongo da zabalik.

## 4 DOMEKA

## ■ MENDI URTEERA

Zaraia mendi taldeak Arabako itzulia hasiko du. Lehen etapa Landatik Etxaguenera izango da.

## IKASTAROAK

## ■ YOGA OINARRIZKO IKASTAROA

Yoga ikastaro teoriko eta praktikoa antolatu da. Atal teorikoan yoga zer den eta zer ez den azalduko da. Praktikoan, barrez, ariketa garrantzitsuenak egingo dira. Martxoaren 1etik apirilaren 5era emango da, martizen eta eguenetan 17:00etatik 18:30era. Irakaslea Encarna Mendez izango da. Izena emateko eta informazio gehiagorako 616 96 57 95 telefonora dei daiteke.

## BESTELAKOAK

■ HERRIKO ARATUSTE-  
AK GOITB-n

Datorren astelehenean, hilak 26, Aretxabaletako aratusteei buruzko programa berezia izango da ikusgai Goitbn. Gaueko 21:25ean hasiko da, eta 30 minutuko iraupena izango du. Aurkezleak Kepa Errasti, Lorea Agiriano eta Iraia Aginagalde izango dira.

## BALITXAKUK (Hikaz berbetan)



Mikel Arroiabe

Aretxagazeta



## Zorion agurrak



**Markel Iriondo**  
Otsailak 11  
Jon eta amatxoren  
partetik maitasun  
osoz zorionak.



**Ion Izagirre**  
Otsailak 17  
Berandu baina,  
Zorionak. Gazte  
gaztea jarraitu eta  
edadie ahaztu.



**Myriam eta Nahia  
Beltran de Heredia**  
Otsailak 22  
Zorionak bigarren  
pisoko familien par-  
tetik.



**Ibon Elorduizapa-  
rietxe**  
Otsailak 23  
Zorionak amatxo  
eta etxeko guztien  
partetik.



**Matias Iriondo**  
Otsailak 24  
Jon eta amatxoren  
partetik maitasun  
osoz zorionak.



**Iñigo Arkauz**  
Otsailak 27  
Zorionak eta muxu  
haundi bat zure  
lehenengo urtebete-  
tzean. Etxekoak.

Sail honetan norbait zoriondu gura baduzu Aretxagazetara zuzendu (Durana, 11) edo eta 943 79 86 21 telefonora deitu.

## Aretxabaleta

• Almen	943 71 49 07
• Aretxagazeta	943 79 86 21
• Telebista	943 79 86 21
• Basotxo	943 77 09 81
• Euskaltea	943 79 21 68
• Gizarte-Laguntzailea	943 79 10 00
• Hezibide Elkartea	934 79 31 32
• Industrialdea	943 79 62 80
• Institutua	943 79 79 00
• Kiroletxea	943 71 26 28
• Kultur-Etxea	943 71 10 27
• Kurtzebarri Eskola	943 79 00 49
• Kurtzebarri B.H.I.	943 79 57 40
• Liburutegia	943 79 10 00
• Loramendi E.E.	943 77 09 70
• Ludoteka	943 79 05 81
• Mankomunitatea	943 79 30 90
• Murruxio M.E.	943 79 93 74
• Musika Eskola	943 79 36 50
• Osasun zentroa	943 79 74 58
• Otalora	943 71 24 06
• Parrokia (Bulegoa)	943 79 18 42
• Pausoka Haur-Esk.	943 77 03 77
• Postetxea	943 79 28 31
• Santa Rita Ikast.	943 79 17 00
• Saretxo	943 71 26 56
• Taxi Geltokia	943 79 22 33
• Udal Bulegoak	943 79 10 00
• Udaltzaingoa	943 79 10 52
• Urats Gain	943 79 99 11

## Udaltzaingoa

• Arrasate	943 79 14 39
• Bergara	943 77 91 06
• Eskoriatza	943 71 44 07
• Oñati	943 78 04 11

## Larrialdia

• SOS Deiak	112
• Eskualde-Ospitalea	943 03 53 00
• Ertzaintza	943 79 71 99
• Gurutze-Gorria	943 76 55 76
• Larrialdia	943 46 11 11
• Suhiltzaileak (Oñati)	943 78 28 00

## Garraioak

• Pesa	902 10 12 10
• Renfe (Gasteiz)	945 23 02 02
• Renfe (Zumarraga)	943 72 15 15

## Txistua • Txaloak

Ez dira gutxi Espainiatik euskarari behin eta berriz egiten dizkieten erasoak. Euskal kulturaren eta euskararekin zerikusia duten oro erasotzen dute. Hemen, bestalde, herritarrek kontzientziatu ezinik jarraitzen dugu. Euskarari dagokionean aldaketa txikiena ere, haundia izan daiteke. Laurogeigarren hamarkadan Udalak gure kaleen izenak euskarara aldatzea onartu zuen. Gaur egun ez dago kale izenik erdaraz. Hala ere, gure buzoietan erdarazko helbideaz datozen dokumentu ugari jasotzen ditugu, eta herriko hainbat furgoneten errotuloetan ere helbidea erdaraz ageri da: *Asunción, Avda. Vizcaya...* **Txistua** atxabaltar hauentzat, euskaldunak izan arren, arlo hauetan sentsibilizatu barik daudelako. Hau ikusita euskara departamendua zeri begira dago?



## Hildakoak

■ **Vidal Castro Sandoval**  
Otsailaren 9an. 74 urte.





## Santa Agedaren omenez

**A**

rgazkiko mutilek orain 36 urte atera zuten goiko erretratua. Hogeitabat urte artean, euren bizitzako sa-soirik ederrenetakoa bizitzeko prest zeuden.

Orduan gaur baino diru gutxiago egoten zen etxeetan. Hala ere, 1965. urteko Santa Ageda mutilek janari eta diru mordo bat zuten. Etxez etxe jasotakoaz jatordu piloa egin zituzten Akilinsonen; tartean angula plater ederrak. Juan Mari Errastik esandakoaren ara-

bera, lapikokada angulak gertatu zizkieten Akilino-neko ama-alabek.

Urte hartan domeka askotan tokatu zitzairen dantza egitea. Juerga egiteko ere aitzakia egokia izaten zen Santa Ageda mutilena. Ordukoa, hala ere, gaur egungoa baino giro sanoagoa zen Juan Mariren iritziz. Ez zuen ez gaur egungoaren antzik.

Goian ezkerretik eskumara: **Jabier Urzelai, Benito Kortabarría, Jose Martin**

**Axpe, Anjel Urzelai, Valentín (Aramaioko txistularia), Anjel Mari Elkoró, Jose Luis Elkoró, Felix Garai, Ramon Elkoró, Bernardo Luelmo.**

Behean ezkerretik eskumara: **Anjel Barandiaran, Jabier Urreta, Andoni Villar (mutikoa), Xabier Zubizarreta (Txiron), Juan Mari Errasti, x, Jose Angel Olazabal.**

Argazkia: Ramon Elkoró.  
Informazioa: Juan Mari Errasti, Anjel Urzelai.



# LASAGABASTER

Zerkaosteta, 1 eta 2 • ARRASATE Tel.: 943 79 27 27 / 943 79 13 55





## Elektrogailuentzako osagaiak egiten ditugu

*transformadoreak ● termostato elektrikoak ●  
elektroponpak ● iturriak ●  
iturgintza elementuak ● programadoreak*



# COPRECI






Araba Etorbidea 5 •  
Tel. / Faxa: 943 79 41 82  
**ARRASATE**



Araba etorbidea 20 •  
Tel. / Faxa: 943 79 23 51  
**ARETXABAETA**



Asunción, 1 •  
Tel. / Faxa: 943 79 10 97  
**ARETXABAETA**



Mitarle 3 •  
Tel. / Faxa: 943 77 04 55  
**ARETXABAETA**



**50 urte baino gehiago gure bezeroen zerbitzura.**

**Eskerrik asko emandako konfiantzagatik**